



TP 128 Spiker

Erabiltzailearen Eskuliburua
TP 128 Spiker Erabilpen- gida



Aurkibidea

1. Ezaugarriak 4

- o Telefonoa
- o Dei egin duen zenbakiaren identifikatzailea
- o Deskribapena
- o Instalazioa

2. Telefonoaren konfigurazioa 7

- o Data eta ordu doikuntza
- o Pantaila-contrastearen doikuntza
- o Txirrin eta bozgorailuaren bolumenaren doikuntza
- o Esku libreko markaketa
- o Markaketa eskegian
- o Birdeia (azken zenbakiarena)
- o Geldialdia
- o Kontagailua
- o Mute
- o Telefono-entzungailuaren erabilera
- o Bateriak birjartzeko
- o Markaketa zuzeneko teklen programazioa
- o Memoria zuzenetatik markatzeko
- o Markaketa zuzeneko teklen edukia ezabatzeko

3. Agendaren konfigurazioa 11

- o Agendatik markatzeko
- o Agendaren datuak ezabatzeko
- o Caller id-ko zenbakiak agendara iraultzeko

Aurkibidea

4. Dei egin duen zenbakiaren identifikatzailearen konfigurazioa

13

- o Testu eta pantailako ikurren deskribapena
- o Telefono-dei bat jasotzeko
- o Dei-zerrenda berrikusten
- o Dei bat dei-zerrendatik egiteko
- o Zenbaki bat ezabatzeko
- o Erabiltzeko eta garbitzeko oharrak

1. Ezaugarriak



Telefonoa.


- 35 erregistro duen agenda
- Markaketa eskegian
- Telefono-entzungailuaren konexioa
- Pultsazio bakarreko 6 memoria-tekla
- Birdeiko 9 zenbaki
- Bolumen eta txirrin maila doigarria
- Pantaila-kontraste doigarria
- Erlojua

Dei egin duen zenbakiaren identifikatzailea.

- Azken 30 deien memorizazioa, zenbaki, data eta orduarekin batera
- Zenbakiak agendara iraultzea
- Markaketa automatikoa memoriatik
- Testu-mezuak dituen pantaila
- Bateria gutxiko adierazpena
- 1'5 v-ko 4 bateria, AA motakoak
- Itxarote-mezuko adierazpena
- 6v-ko AC-DC egokigailua

Deskribapena.







- | | |
|---|--|
| 15. Mikrotelefona | 1. ⊗ MUTE |
| 16. Bozgorailua | 2. R tekla |
| 17. Esekitokia | 3. ●● / P Birdeia / Geldialdia |
| 18. Alfazenbakizko teklatura | 4. 📢 Esku Libreko Markaketa |
| 19. Kristal likidoko pantaila | 5. Markaketa bakarrek memoriak (M1etik M6ra) |
| 20. Esku libreko bozgorailua | 6. Bolumen kontrola |
| 21. ▽ (Beheranzko gezia) | 7. Pilak |
| 22. △ (Goranzko gezia) | 8. Entzungailuko kablearen konektorea |
| 23. OK | 9. Aurkibideko txartela |
| 24. Irten | 10. Jack AC-DC egokigailua |
| 25. LED adierazlea | 11. Jack konektorea telefono-entzungailurako |
| 26. ⚙️ programazioa | 12. Entzungailua/Telefono-entzungailua hautatzeko sakagailua |
| 27. Ezabatu | 13. Txirrin Altua/Baxua/Off |
| 28. MENUA (1=agenda, 2=erlojua, 3 = Kontrastea) | 14. Telefonoaren Jack konektorea |

Instalazioa

1. Sartu kalitate handiko 4 pila blindatu pila-gunean, telefonoaren ezkerreko izkinan. Oso garrantzitsua da polo positiboa eta negatiboa zuzen jarrita egotea.



2. Konektatu entzungailuaren kordoi kiribila oinarrizko unitateko Jack konektorean. Konektatu lineako kablearen mutur bat oinarrizko unitateko jack-ean eta beste muturra, aldiz, hormako telefono-hartunean.



3. Aukeran duzu 6 v-ko 100 mA AC-DC egokigailua erabiltzea, pilak erabili beharrean.

2. Telefonoaren konfigurazioa

Data eta ordu doikuntza.

Hautatu ERLOJUA, (MENUA) tekla birritan sakatuz. Sakatu (OK) berresteko. Orain, sartu ordua, minutuak, hila eta eguna, kurtso-reteklak erabiliz eta berretsi parametro bakoitza, (OK) tekla sakatuz. Erlojuak hurrengo parametroari ekingo dio automatikoki. Doikuntza arrakastaz burutu denean, sakatu (IRTEN) behin.

Oharra: (MENUA) teklak 5 funtzio ezberdin du: behin sakatuta: AGENDA; birritan sakatuta: ERLOJUA, hiru aldiz sakatuta: KONTRASTE, lau aldiz sakatuta: HIZKUNTZA eta bost aldiz sakatuta: BATERIAK ALDATZEA

Pantaila-kontrastearen doikuntza.

Sakatu (MENUA) hiru aldiz, KONTRASTE moduan sartzeko. Hautatu nahi duzun kontraste maila (1etik 7ra), (▽|△) teklak sakatuz. Berretsi doikuntza, (IRTEN) sakatuz.

Txirrin eta bozgorailuaren bolumenaren doikuntza.

Soinu maila oinarrizko unitatearen bolumen gurpila eskuinerantz biratuz doitzen da. Gurpila eskuineko aldean dago eta nahi den maila lortu arte biratu behar da. Txirrin bolumena oinarrizko unitatearen atzealdean dagoen kommutadorea nahi den posizioan jarri doitzen da (altua / baxua / off).

Esku libreko markaketa.

- Utzi entzungailua eskegi-posizioan eta sakatu esku libreko markaketako tekla, markaketa-tonua izateko.
- Markatu telefono-zenbakia.
- Hartu entzungailua, besteak deia hartzen duenean.

Markaketa eskegian.

- Utzi entzungailua eskegi-posizioan.
- Markatu telefono-zenbakia.
- Sakatu esku libreko markaketako tekla. Zenbakia automatikoki markatuko da.
- Hartu entzungailua, besteak deia hartzen duenean.

Birdeia (azken zenbakiarena).

Azken 9 deiak birdeien memoria biltegitratuko dira eta erraz dei daiteke berriro horietara:

- Sakatu (/ P) tekla.
- Hautatu tekla beharreko zenbakia, ▾ tekla erabiliz.
- Hartu entzungailua edo sakatu esku libreko markaketako tekla. Zenbakia automatikoki markatuko da.

Birdeien memoria beteta dagoenean, zenbaki berriek zaharrak ordeztuko dituzte.

Geldialdia.

/ P tekla sekuentzia bateko markaketan 2.4 sg-ko geldialdia sartzeko erabil daiteke. Oso argia da, telefono-guneko sistema baten bidez markatzen denean edo luzapen zuzen batera deitzen denean.

Kontagailua.

Kontagailua igarotako denbora zenbatzen hasiko da, entzungailua hartu edo esku libreko markaketako tekla sakatu bezain laster.

Mute.

tekla elkarrizketa batean mikrotelefonoa deskonektatzeko erabiltzen da. Sakatu tekla behin, deskonektatzeko. Berriro aktibatzeke, ordea, sakatu aipatutako tekla berriro.

Telefono-entzungailuaren erabilera.

Entzungailuaren orde, telefono-entzungailu bat erabil daiteke (aukerakoa da; beraz, ez dago kutxa barruan).

- Konektatu telefono-entzungailuaren jack-a oinarriaren atzealdean dagoen jack konektorean.
- Sakatu jack-aren ondoan dagoen telefono-entzungailuko tekla.

Oharra: telefono-entzungailuko tekla sakatu ondoren, deiak telefono-entzungailua bakarrik erabiliz erantzun ahal izango dira. Entzungailua erabiltzeko, sakatu aipatutako tekla berriro.

Dei bat telefono-entzungailuaren bidez erantzuteko:

- Jarri telefono-entzungailua
- Sakatu esku libreko markaketako tekla
- Sakatu berriro esku libreko markaketako tekla, elkarrizketa amaitutakoan.

Dei bat telefono-entzungailuaren bidez egiteko:

- Jarri telefono-entzungailua
- Sakatu esku libreko markaketako tekla
- Markatu telefono-zenbakia
- Itxaron, besteak deia hartu arte
- Sakatu berriro esku libreko markaketako tekla, elkarrizketa amaitutakoan.

Telefono-entzungailua deskonektatzeko:

- Sakatu telefono-entzungailuko tekla oinarriaren atzealdean
- Deskonektatu telefono-entzungailuaren konektorea.


Bateriak birjartzeko.

Pilak agortzen hasten direnean, bateria-ikur bat agertuko da pantailan eta pila berriak jarri beharko dira. Oso garrantzitsua da 4 pilak batera aldatzea, ikonoa pantailan agertu bezain laster. Memoriaren datuak (agenda, memoria zuzenak eta dei-identifikazioak) ez galtzeko, sistema GELDITUTA moduan edo MEMORIA ATXIKITZEA moduan egon beharko da. Horrek memoriak 60 segundoren bat irautea ahalbidetuko du, pilak kendu ondoren. Jarraitu hurrengo prozedurari:

- Prestatu 1.5 v-ko 4 pila blindatu, AA motakoak
- Sakatu MENUA tekla 5 aldiz. Pantailan BATT ALDATZEA agertuko da.
- Sakatu OK tekla, berresteko
- Pantailan SISTEMA GELDITUTA agertuko da
- Aldatu pilak ahalik eta azkarren (60 sg, gehienez)
- Sakatu MENUA tekla 3 segundoan, oinarria bere ohiko egoerara itzultzeko.

Markaketa zuzeneko teklen programazioa.

Markaketa zuzeneko 6 programazio-tekla (M1etik M6ra) daude, ohiko zenbakiak eta horiei lotutako izenak biltegitatzeko. Tekla bakoitzean 16 zenbaki eta 15 karaktere biltegitara daitezke, gehienez. Hurrengo adibideak "123456789" zenbakia eta horri lotutako "JOHN SMITH" izena M1 memorian nola biltegitatu erakutsiko digu:

- Izan entzungailua eskegita.
- Sakatu M1 tekla.
- Sakatu  tekla.
- Idatzi dei egin duen pertsonaren izena, zenbakizko tekla erabiliz.
- Sakatu OK
- Idatzi "123456789" zenbakia (16 zenbaki, gehienez).
- Sakatu OK, berresteko.

"JOHN SMITH" idazteko:

- J: sakatu "5" behin
- O: sakatu "6" hiru aldiz
- H: sakatu "4" birritan
- N: sakatu "6" birritan

Sakatu "1", zuriunea txertatzeko.

- S: sakatu "7" lau aldiz
- M: sakatu "6" behin
- I: sakatu "4" hiru aldiz
- T: sakatu "8" behin
- H: sakatu "4" birritan

1 tekla: 1, zuriunea	2 tekla: ABC 2ÅÄ/ÆÇ	3 tekla: DEF 3
4 tekla: GHI 4	5 tekla: JKL 5	6 tekla: MNONÖØ 6
7 tekla: PQRS 7	8 tekla: TUVU 8	9 tekla: WXYZ 9

Oharra: Edozein sarrera oker gezi-teklak edo EZABATU tekla erabiliz zuzen daiteke. Prozesuan zenbakiak/izenak biltegitatzeari utzi nahi badiozu, sakatu IRTEN tekla edo itxaron 20 sg-an, pantaila bere egoera arruntera itzultzeko.

Memoria zuzenetatik markatzeko.

- Hartu entzungailua edo sakatu esku libreko markaketako tekla.
- Sakatu M1etik M6ra bitarteko tekla bat
- Zenbakia automatikoki markatuko da

Edo bestela

- Sakatu M1etik M6ra bitarteko tekla bat
- Sakatu esku libreko markaketako tekla.
- Zenbakia automatikoki markatuko da
- Hartu entzungailua

Markaketa zuzeneko teklen edukia ezabatzeko.

Memoria zuzeneko zenbakiak eta izenak ezaba daitezke, hurrengo pausoei jarraituz:

- Sakatu M1etik M6ra bitarteko tekla bat
- Sakatu EZABATU tekla
- Sakatu OK

3. Agendaren konfigurazioa

Agendak 35 erregistro biltegitzeko lekua du. Caller ID-ko zenbakiak agendara iraul daitezke eta dei egin duen zenbakia agendan biltegitatuta badago, zenbakia zein izena pantailan agertuko dira. Jarraian "123456789" zenbakia eta "JOHN SMITH" izena agendan nola biltegitatu erakutsiko dugu:

- Izan entzungailua eskegita.
- Sakatu MENUA tekla behin, AGENDA modua hautatzeko.
- Sakatu tekla.
- Pantailan "XX sarrera" (0tik 34ra bitarteko zenbaki bat) agertuko da. Sakatu OK.
- Idatzi dei egin duen pertsonaren izena, zenbakizko teklak erabiliz.
- Sakatu OK
- Idatzi "123456789" zenbakia (16 zenbaki, gehienez).
- Sakatu OK, berresteko.

“JOHN SMITH” idazteko:

- J: sakatu “5” behin
- O: sakatu “6” hiru aldiz
- H: sakatu “4” birritan
- N: sakatu “6” birritan

Sakatu “1”, zuriunea txertatzeko.

- S: sakatu “7” lau aldiz
- M: sakatu “6” behin
- I: sakatu “4” hiru aldiz
- T: sakatu “8” behin
- H: sakatu “4” birritan

Oharra: Edozein sarrera oker gezi-teklak edo EZABATU tekla erabiliz zuzen daiteke. Prozesuan zenbakiak/izenak biltegitratzeari utzi nahi badiozu, sakatu IRTEN tekla edo itxaron 20 sg-an, pantaila bere egoera arruntera itzultzeko.

Agenda beteta dagoenean, pantailan “BETETA” mezua agertuko da.

Agendatik markatzeko.

Jarraitu hurrengo prozedurari, JOHN SMITHi deitzeko:

- Sakatu MENUA tekla, AGENDA moduan sartzeko.
- Sakatu OK
- Pantailan “IZENA?” agertuko da. Idatzi izenaren lehenengo letra: “J” (sakatu “5” behin)
- Sakatu OK. Pantailan “J”z hasten den agendako lehenengo izena agertuko da.
- Erabili Δ eta ∇ teklak, nahi den erregistroa hautatzeko.
- Sakatu esku libreko markaketako tekla, zenbakia markatzeko.
- Hartu entzulgailua, besteak deia hartzen duenean.

Agendaren datuak ezabatzeko.

John Smithen erregistroa agendatik ezaba daiteke, jarraian azaltzen den moduan:

- Sakatu MENUA tekla, AGENDA moduan sartzeko.
- Sakatu OK.

- Pantailan “IZENA?” agertuko da. Idatzi hasierako letra: “J” (sakatu “5” behin).
- Sakatu OK. Pantailan “J”z hasten den agendako lehenengo izena agertuko da.
- Erabili Δ eta ∇ teklak, nahi den erregistroa hautatzeko.
- Ezabatu erregistroa, EZABATU tekla sakatuz. Pantailan “EZABATU?” agertuko da.
- Sakatu OK, berresteko.

Caller id-ko zenbakiak agendara iraultzeko.

Caller ID-ko memoriaren zenbakiak agendara eraman daitezke, hurrengo prozedurari jarraituz:

- Aurkitu nahi den erregistroa, Δ eta ∇ teklak erabiliz.
- Sakatu \square tekla. Pantailan “HONETAN BILTEGIRATU” agertuko da.
- Sakatu \square tekla. Zenbakia agendan gordeko da.
- Sakatu MENUA, agenda irekitzeko.
- Sakatu OK
- Sakatu Δ tekla, biltegiratutako erregistroa bistaratzeko.
- Sakatu \square tekla.
- Idatzi izen \square eta sakatu OK birritan.

4. Dei egin duen zenbakiaren identifikatzailearen konfigurazioa

Telefono honek badu dei egin duen zenbakiaren identifikazioaren funtzioa. Beraz, deiaren telefono-zenbakia, data eta ordua pantailan agertuko dira. Dei egin duen pertsonaren izena agendan biltegiratuta badago, izen hori ere pantailan bistaratuko da.

Testu eta pantailako ikurren deskribapena.

Hurrengo ikurrak eta testuak pantailan agertuko dira:

CALL #	Sartzen den dei bakoitzari 1etik 30era bitarteko zenbaki bat esleituko zaio. Dei-zerrenda beteta dagoenean, sarrera berriak zaharra ordeztuko du.
NEW	Dei berri bat berrikusi arte, BERRIA ikurra agertuko da pantailan.
RPT	RPT ikurrak zenbaki batek behin baino gehiagotan dei egin duela esan nahi du.
	Ikur honek postontzian mezu bat dagoela adierazten du.
	Pilak ordeztu behar direla adierazten du. Pilen ordez, AC-DC egokigailua erabiltzen denean ere agertuko da ikurra.
PRIVATE	Dei egin duen pertsonak zenbakia pantailan bistaratzea nahi ez badu, mezu hau agertuko da.
OUT OF AREA	Deia eremu lokaletik kanpo egiten denean agertuko da.
	Pantailan agertuko da, mikrofonoa MUTE egoeran dagoenean.
TOTAL	Dei-identifikatzailean biltegiratutako erregistro kopuru osoa bistaratuko du.
NUEVA	Dei-identifikatzailean (berrikusi gabe) dauden erregistro berrien kopuru osoa bistaratuko du.

Telefono-dei bat jasotzeko.

Telefono-dei bat jasotzen denean, zenbaki, data eta ordua pantailan bistaratzen dira. Zenbakia agendan edo memoria zuzenetan jada biltegiratuta badago, zenbakiarekin batera biltegiratu den izena ere bistaratuko da.


Dei egin duen zenbakiaren identifikatzailearen memoriak 30 erregistro biltegiratzeko lekua du. Memoria beteta dagoenean, sarrera zaharrena ezabatuko da eta berriak ordeztuko du.

Dei-zerrenda berrikusten.

Dei-identifikatzaileen zerrenda araka daiteke, Δ eta ∇ teklak erabiliz. Erabili Δ tekla, azken deia ikusteko eta ∇ tekla, aldiz, memorian atzera egiteko.

Dei bat dei-zerrendatik egiteko.

Zerrendatik dei bat egin daiteke zuzenean, horrela:

- Bilatu deitu beharreko zenbakia, Δ eta ∇ teklak erabiliz.
- Sakatu OK edo  libreako markaketako tekla. Zenbakia automatikoki markatuko da.
- Hartu entzungailua, besteak deia hartzen duenean.

Zenbaki bat ezabatzeko.

Caller ID-ko zerrendako zenbakiak ezaba daitezke, banan-banan ala guztiak batera.

Zenbaki bat ezabatzeko:

- Bilatu nahi duzun zenbakia, Δ eta ∇ teklak erabiliz.
- Sakatu EZABATU tekla.
- Sakatu OK tekla, berresteko.
- Zenbakia ezabatu da.

Zenbaki guztiak ezabatzeko:

- Bilatu zerrendako edozein zenbaki.
- Sakatu OK tekla 6 sg-an. Pantailan "DENA EZABATU?" agertuko da.
- Zenbaki guztiak ezabatu dira.

Erabiltzeko eta garbitzeko oharrak.

Erabili trapu lehor bat edo pixka bat bustita dagoen beste bat, telefonoa garbitzeko. Ez erabili inoiz produktu kimikorik, telefonoaren azala hondatuko baitute.

Tximistargiak dituen ekaitza egotekotan, telefonoa hormako errosetatik deskonektatzea gomendatzen da. Izan ere, bermeak ez ditu bere gain hartzen ekaitzeko tximistek eragindako kalteak.

ADOSTASUN-ADIERAZPENA

Metrega Telefonía S.L.

Fra Juníper Serra, 91-93
08030 Bartzelona
Tlfn.zk: 93 360 22 22
IFK: B62205174 eta Espainiako banatzaile bakarra

Gure ardura bakarraren mende, adierazpen honek helburu duen produktuaren:

*Telefono-terminala: Spiker marka, TP128A modeloa,
D.R.S Electronics Ltd-k Txinan egina*

adostasuna adierazten dugu, hurrengo arauekin:

*ETSI TBR 21 (1998ko urtarrila)
1999ko apirilaren 12ko 1999/303/EC erabakia, DOCE L118/55 (ICTR-37)
ETSI TBR 38 (1998ko maiatza)
EN 60950 (1998)
EN 55022 (1998)
EN 61000 (3-2 (1995) ; 3-3 (1995); 4-2 (1995); 4-3 (1996); 4- 4 (1995); 4-5
(1995); 4-6 (1996); 4-8)*

Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/CE Zuzentarauaren arabera. Zuzentarau hori Espainiako legerian indarrean sartu zen, azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez.

Bartzelonan, 2002ko martxoaren 7an

Lluís Enric Escassi Pascual

BERMEA

TP-128A telefono-terminalek urte bateko bermea dute, erosketa-egunetik zenbatzen hasita. Bermeak fabrikazio-akatsak edo osagai akastunek eragindako matxuren konponketa (eskulana eta materiala barne) hartzen du bere gain.

Bermeak ez ditu bere gain hartzen telefonoaren funtzionamendu txarretik ondorioztatutako matxurak, horiek erabilera desegokiak, instalazio okerrak, apropos egindako kalteak edo aparatutik kanpoko arazoiek eragin badituzte. Era berean, bermeak ez ditu bere gain hartzen kolpeei, erorketei, bustialdiei eta ingurumeneko muturreko baldintzapean jartzeari egotz dakizkiekeen akatsak, ezta erabilera arruntak eragindako narriadurak ere, hala nola, plastikozko elementuak, teklatuak, esmalteak edo pinturak.

Telefono-terminala akastuna bada eta oraindik ere berme-epearen barruan badago, Spiker SATEko bezeroarekiko arretarako zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko zara, emandako telefono-zenbakiaren bidez, eta materiala beraiek adierazitako lekura bidali beharko duzu, bermearekin eta erosketa-probako dokumentuarekin batera. Pilak eta bateriak bermetik kanpo daude.

MODELOA:

APARATUAREN SERIE-ZENBAKIA:

EROSKETA-EGUNA:

SALTOKI SALTZAILEAREN ZIGILUA: